


10 enplegatu eta gehiagoko euskal enpresen % 30,1ek berrikuntza teknologikoa egin zuten 2010ean

Berrikuntza ez-teknologikoa ere kontuan hartuta, %38,9raino iritsi da ehunekoa

2010ean berrikuntza teknologikoa egin zuten Euskal AEko enpresen ehunekoa %13,8 izan zen, %30,1 hamar enplegatu eta gehiagoko enpresen kasuan, Eustaten datuen arabera. 2010. urtean, Euskal AEko enpresek 2.581,9 milioi euroko gastua egin zuten teknologia berritzeko jardueretan; aurreko urtean baino % 6,2 gutxiago. BPGren % 3,95 izan zen gastu hori.

Berrikuntzarako behar diren jarduera garrantzitsuenen artean, honako hauek nabarmentzen dira: barruko I+G (% 52,7); makinak eta ekipoa erosteko gastua (% 20,8) eta kanpoko I+Gren erosketa (%13,2). Gainerako jardueretarako %13,3 geratzen da.

1. grafikoa: Berrikuntza gastuaren banaketa jardueren arabera. 2010 urtea. (%)



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

2008-2010 aldian Euskal AEn berrikuntza teknologikoan aritutako enpresa-kopurua guztizkoaren % 13,8 izan zen, aurreko urtean baino zazpi hamarren gutxiago, 25.747 enpresei dagokiena. Berrikuntza teknologikoaz hitz egiten da enpresek merkatuan produktu berriren bat (ondasuna edo zerbitzua) edota asko hobetutako produkturen bat sartzen dutenean (guztizkoaren % 5,6 2010ean), edota establezimenduaren baitan prozesu berriren bat edo asko hobetutako prozesua ezartzen dutenean (%11,6).

1. taula: Berrikuntza teknologikoa egindako enpresak eta gastua aldiaren arabera

Unitatea: milioi eurotan eta enpresen %tan

	2001-2003	2002-2004	2003-2005	2004-2006	2005-2007	2006-2008	2007-2009	2008-2010
Euskal AE	16,5	16,8	16,9	16,6	16,1	15,0	14,5	13,8
Lurralde historikoa								
Araba / Álava	12,8	13,6	15,1	15,7	15,9	13,7	12,9	13,4
Bizkaia	16,0	17,5	17,6	17,1	16,7	15,5	16,3	14,2
Gipuzkoa	18,7	17,0	16,5	16,3	15,1	14,7	12,6	13,3
Berrikuntzako gastua	1.836,0	2.010,2	2.161,7	2.352,2	2.609,9	2.782,0	2.753,4	2.581,9
10 langile edo gehiago	32,1	31,9	33,3	32,7	32,0	31,5	29,8	30,1
Lurralde historikoa								
Araba / Álava	29,7	31,9	33,8	34,3	30,1	29,9	30,4	32,3
Bizkaia	30,9	30,1	32,4	30,5	29,9	29,4	27,9	25,6
Gipuzkoa	35,1	34,6	34,3	35,3	36,2	35,4	32,2	35,8
Berrikuntzako gastua	1.472,6	1.463,6	1.677,8	1.829,7	2.030,0	2.193,9	2.219,9	2.159,5

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

Ehuneko horiek % 30,1eraino iristen dira, 10 langile eta gehiagoko enpresak bakarrik kontuan hartuta, iazko datuetan baino hiru hamarren gehiago. Tamaina horretakoetan, produktuan % 19,9 izan dira berritzaileak, eta prozesuan % 22,2.

Berrikuntzako intentsitatea (berrikuntzako jardueren gastuak zati negozio-kopurua) % 1,62 izan zen, eta barruko I+Garen intentsitatea (barruko I+G gastuak zati negozio-kopurua) % 0,85. Alabaina, 10 langile eta gehiagoko enpresetan ehuneko horiek handiagoak izan ziren: % 2,10 eta % 1,23, hurrenez hurren.

2 Taula: Berrikuntza teknologikoaren eta barruko I+Garen intentsitatea, lurraldea eta tamaina kontuan hartuta. Euskal AE. 2010. (%)

	Guztira		10 langileko eta gehiago	
	Berrikuntza maila (1)	Barruko I+G maila (2)	Berrikuntza maila (1)	Barruko I+G maila (2)
Enpresak guztira				
Euskal AE	1,62	0,85	2,10	1,23
Lurralde historikoa				
Araba/Álava	1,98	0,67	2,41	0,92
Bizkaia	1,44	0,83	1,82	1,20
Gipuzkoa	1,76	1,00	2,45	1,48
Jarduera berritzaileak dituzten enpresak				
Euskal AE	4,33	2,28	4,17	2,45
Lurralde historikoa				
Araba/Álava	5,05	1,72	4,60	1,76
Bizkaia	3,90	2,24	3,74	2,45
Gipuzkoa	4,66	2,64	4,70	2,85
I+G jarduerak dituzten enpresak				
Euskal AE	5,75	3,78	5,39	3,67
Lurralde historikoa				
Araba/Álava	5,61	2,38	5,08	2,28
Bizkaia	5,65	4,15	5,46	4,21
Gipuzkoa	5,97	4,08	5,46	3,76

(1) Berrikuntza maila: (berrikuntzako gastuak/negozio kopurua)*100

(2) Barruko I+G maila: (barruko I+Gko gastuak/negozio kopurua)*100

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

Enpresa berritzaileen %32,1ek finantzaketa publikoa jasotzen du

Enpresa berritzaileen % 32,1ek nolabaiteko finantza-laguntza publikoa jasotzen du. Laguntza horren jatorriari behatuz gero, Eusko Jaurlaritza nabarmentzen da, laguntza guztien % 23,8rekin. 10 langile eta gehiago dituzten enpresetan, % 52,8k laguntzak jasotzen dituzte, eta Eusko Jaurlaritza da, halaber, enpresarik gehien finantzatzen duena, zehazki tamaina horretako enpresen % 43,5.

3. taula: Finantzazio publikoa jasotzen duten enpresa berritzaileak, finantzazioaren jatorriaren arabera 2008-2010. (%)

Unitatea: enpresa portzentajea

	Guztira	10 langile edo gehiago
Finantzaketa publikoajasotzen dute hauetatik	32,1	52,8
Tokiko administrazioak	4,6	7,5
Foru aldundiak	13,6	14,4
Eusko Jaurlaritza	23,8	43,5
Administrazio zentrala	9,7	20,3
Europar Batasuna	6,8	6,9

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

I+Gko eta berrikuntza jardueren gaineko lankidetzari dagokionez, establezimendu berritzaileen % 10ek hitzarmenen bat sinatu du enpresa edo instituzioekin 2008-2010 aldian. Ehuneko hori % 25,2ra heltzen da 10 enplegatu eta gehiagoko establezimenduetan.

Enplegu-tamaina horretako establezimenduetan, lankidetza honako hauekin gertatu da: Zentro teknologikoekin (% 53,5), Enpresa bereko beste establezimendu batzuekin (% 52,8), Ekipoen, materialen eta abarren hornitzaileekin (% 37,2), Unibertsitate nahiz goi mailako beste hezkuntza-institutu batzuekin (% 36,7) eta Aditu eta aholkularitzekin (% 32,9).

Enpresa berritzaileen % 77,4aren ustez berrikuntzak ondorio positiboak ditu

Enpresa berritzaileen % 77,4ak uste du berrikuntzak ondorio positiboak dituela. % 71,2aren ustez berrikuntzak ondorio positiboak ditu beren produktuetan, hau da, ondasunetan edo zerbitzuetan; % 60,1aren ustez barruko prozesuetan ditu ondorio positiboak eta % 39ak pentsatzen du beste ondorio positibo batzuk badaudela, ingurumenean edo langileen osasunean, esaterako.

10 langile eta gehiagoko enpresa berritzaileetan, % 90,9aren ustez berrikuntzak ondorio positiboak ditu, eta arestian aipatu gainerako ehunekoak (tamaina horretakoetan) % 87,1, % 74,4 eta % 55,6 dira, hurrenez hurren.

4 Taula: Berrikuntza teknologikoaren eraginak enpresa berritzaileetan. 2008-2010 (%)

Unitatea: enpresa portzentajea

	Guztira	10 langileko eta gehiago
Berrikuntza teknologikoaren ondorioak	77,4	90,9
Produktuen gaineko ondorioak	71,2	87,1
.-Ondasun edo zerbitzuen aukera zabalagoa	45,8	65,5
.-Produktu edo prozesu zaharkituen ordezkapena	48,5	55,3
.-Merkatu berrietan sartzea	34,1	41,6
.-Merkatu-kuota handiagoa	30,8	41,9
.-Ondasunen edo zerbitzuen kalitate handiagoa	61,6	77,7
Prozesuen gaineko ondorioak	60,1	74,4
.-Malgutasun handiagoa ekoizpenean edo zerbitzuak ematean	44,2	59,9
.-Ekoizteko edo zerbitzuak emateko ahalmen handiagoa	47,3	58,0
.-Lan-kostu txikiagoak ekoiztu den unitate bakoitzeko	22,0	31,7
.-Material gutxiago ekoiztu den unitate bakoitzeko	19,5	23,3
.-Energia gutxiago ekoiztu den unitate bakoitzeko	12,9	26,8
Bestelako ondorioak	39,0	55,6
.-Ingurumen-eragin txikiagoa	24,0	34,1
.-Langileen osasunaren eta segurtasunaren areagotzea	22,6	32,9
.-Arau-betekizunen betetzea	28,4	43,3

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

Teknologia-berrikuntza oztopatzen duten faktoreak badirela uste du enpresen erdiak baino gehixeagok

Era berean, enpresen erdia pasak, % 63,1ek hain zuzen ere, uste du teknologia-berrikuntza zailtzen duten faktoreak badirela, ekonomikoak batik bat. Faktore horien artean, berrikuntzen kostu handiegia (% 46,2), gehiegizko arrisku ekonomikoak (% 43,7) eta finantza-iturri falta (% 43,1) nabarmentzen dituzte enpresek. 10 enplegatu eta gehiagoko enpresetan, berrikuntza oztopatzen duten faktoreak badirela uste dutenak % 69,6 dira, aipatutako oztopoak berberak direlarik.

5. taula: Enpresak, berrikuntzari traba egiten dioten faktoreen arabera. 2008-2010.(%)

Unitatea: enpresa portzentajea

	Guztira	10 langile edo gehiago
Berrikuntzari traba egiten dioten faktoreak daude	63,1	69,6
Faktore ekonomikoak:	52,6	57,6
.- Gehiegizko arrisku ekonomikoak	43,7	43,8
.- Berrikuntzako kostu handiak	46,2	51,4
.- Finantzaketa-iturririk ez	43,1	44,3
Barruko faktoreak:	30,8	45,4
.- Erakundearen zorrotasunak	13,6	24,5
.- Langile gaiturik ez	18,3	27,2
.- Teknologiari buruzko informaziorik ez	19,2	24,3
.- Merkatuei buruzko informaziorik ez	17,5	22,6
Beste faktore batzuk:	30,2	36,8
.- Arauek malgutasun urria dute	17,4	25,4
.- Bezeroek sentikortasunik ez	22,4	26,1
.- Bestelakoak	7,0	4,8

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

10 enplegatu eta gehiagoko enpresa berritzaileen % 30,8k patenteren bat edo bestelako babes-metodoren bat erabili du asmazio edo berrikuntzetarako

Aipatzekoa da 2008-2010 aldian 10 enplegatu eta gehiagoko enpresa berritzaileen % 30,8k patenteren bat edo bestelako babes-metodoren bat erabili duela. Aldi horretan, mota honetako enpresen % 11k eskatu zuen patenteren bat bere establezimenduetan egindako asmakuntza edo berrikuntza babesteko, eta enpresen %13,8k patenteren bat zuen indarrean 2010. urtearen amaieran. Bestelako babes-metodoak direla eta, 10 enplegatu eta gehiagoko enpresa berritzaileen % 24,8k erabili du baten bat aipatu aldian. Azken hauen artean aipatzekoak dira marken erregistroa (% 22,6) eta modeloena (% 13,9).

2008-2010 aldian Euskal AEko 10 enplegatu eta gehiagoko enpresen % 38,9k berrikuntza teknologikoa edo ez-teknologikoa egin zuten

Euskal AEn berrikuntza ez-teknologikoa ere kontuan hartzen bada, enpresen %19,8 izan zen berritzaile (berrikuntza teknologikoa edo ez teknologikoa) 2008/2010 aldian. Portzentaje hori berrikuntza teknologikoz gain (%13,8) berrikuntza ez-teknologikoa egiten duten enpresen guztizkoaren %11,8 kontuan hartuta lortzen da. 10 enplegatu eta gehiagoko enpresak bakarrik kontuan hartuz, enpresa berritzaileak %38,9 dira (berrikuntza teknologikoa edo ez-teknologikoa).

Berrikuntza ez-teknologikoa antolaketa- edo merkaturatze-berrikuntzek osatzen dute.

Antolaketa-berrikuntza enpresa barruan antolatze-metodo berriak ezartzea da enpresako barne-funtzionamenduan, eta euskal enpresen % 8,3k egiten dute. **Merkaturatze-berrikuntza** lehen erabilitakoak ez diren edo nabarmen aurrekoetatik ezberdinak diren merkataritzako estrategia edo kontzeptuen egikaritzea da, eta Erkidegoko enpresen % 6,3k egiten dute.

6. taula: Enpresak berrikuntza motaren eta tamainaren arabera. 2008-2010

Unitatea: establezimenduen ehunekoa

Euskal AE	Berrikuntza ez-teknologiko mota		Enpresa berritzaile ez-teknologikoak	Enpresa berritzaile teknologikoak (1)	Enpresa berritzaileak (1) (teknologikoak edo ez-teknologikoak)	Enpresa berritzaile EIN (2) (teknologikoak edo ez-teknologikoak)
	antolamenduan	merkaturatzean				
Guztira	8,3	6,3	11,8	13,8	19,8	20,3
10 enplegatu eta gehiago	22,3	11,2	26,2	30,1	38,9	41,4

(1) Aribideko edo huts egindako berrikuntzako enpresak ez daude barne.

(2) Aribideko edo huts egindako berrikuntzako enpresak barne daude.

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI

10 enplegatu eta gehiagoko enpresei dagokienez, edozein motatako berrikuntza egiten dutenak % 38,9 dira aldi horretan.

Kopuru hori lortzen da kontuan hartuz berrikuntza teknologikoa enpresa horien % 30,1ek egiten dutela, eta ez-teknologikoa % 26,2k.

Berrikuntza ez-teknologikoa, bestalde, tamaina horretako enpresen % 22,3an antolaketa-berrikuntzan gauzatzen da, eta merkaturatze-berrikuntzan % 11,2an.

Soilik aribidean dauden edo huts egindako berrikuntza duten enpresak ere kontuan hartuz (EIN izenekoak), 10 enplegatu eta gehiagoko enpresa berritzaileen ehunekoa % 41,4 dela gaineratu daiteke.

Ohar metodologikoa: Berrikuntza Teknologikoko Inkesta BTI 2009tik aurrera **2009ko Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala (JESN-2009)** ezarri zen.

[Clasificaciones de Actividades CNAE-93 y CNAE-2009](#)

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jose Miguel Escalada

Tel:+34-945-01 75 96 Faxe:+34-945-01 75 01

Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI. Prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta, BTI. Datu-bankua